

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroa Ezagutu Sarearen webgune berriak espazio natural eta bereizgarriak dinamizatzeko lana sendotu du

Elizalde kontseilariak mapak, abegi-zentroak eta zerbitzuen eta baliabideen informazio-egutegia biltzen dituen tresna berria aurkeztu du.

Asteartea, 2018.eko abenduak 18

[Nafarroa Ezagutu Sarearen](#) webgune berriak espazio natural eta bereizgarriak dinamizatzeko lana sendotu du, eta mapak, abegi-zentroak eta zerbitzuen eta baliabideen informazio-egutegia gehitu dizkio.

Webgune honi esker, eremu ezberdinetako enpresa kudeatzaile eta erakunde elkartuek trukerako eremu komun bat izango dute sarean.

Eta, aldi berean, Nafarroa ezagutu eta bisitatu nahi dutenek erakusleihobat izango dute tokiko produktu eta ibilbide eta espazio naturalen eskaintzari buruz kontsultak egiteko, turismo-zerbitzuen zuzeneko salmenta egiteko eta haien ekitaldi edo jarduerak soziokulturalen agenda komun bat edukitzeko.

Lurraldearen eta iraunkortasunaren Nafarroako Lursarea Agentziak bultzatutako eta koordinatutako elkarte bat da Nafarroa Ezagutu Sarea. Duela gutxi sortu zen, Foru Erkidegoko tokiko agenteek eurek —hogeita hamar bat espazio natural, bereizgarri eta bide natural baino gehiago biltzen dituen— ekitaldi edo jarduerak partekatu eta zerbitzu komunez hornitzeko egindako eskaerari erantzunez. Esperientziak eta ezagutza trukatzeko eta eskaintza osatzeko aukera ere emango du.

Isabel Elizaldek Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazio kontseilariak aurkeztu du webgune berria, gaur goizean, Atarrabiako San Andres Errotan. Ekitaldian Lursarearen beste bi teknikari ere izan dira, Uxue Itoiz eta Micaela García hain zuzen ere.

Lurraldea lantzeko beste era bat

Elizalde honela azpimarratu du: “Web-tresna hau egitean, modu desberdin batean lan egin dugu eta proiektu honen barnean Nafarroa Ezagutu Sarearen elkartearen baitan dauden espazio natural, tokiko



Elizalde kontseilaria, tokiko nekazaritzako produktuekin egindako Nafarroako maparen aldamenean.

agente edo udalak kudeatzen dituzten pertsonak eurek egindako lan garrantzitsua agerian utzi du”.

Kontseilariak azpimarratu du Ezagutu Sarearen elkarrearen sorrera bultzatu duen lan-metodoak- eta -dinamikak “lurraldearekin harremanetan egoteko eta biztanleekin lan egiteko beste era bat erakutsi digula, alegia, elkarrenganako inplikazioa eta lankidetzaren oinarri hartuta, lurra behetik gora zapalduta, arazo komunei entzun eta irtenbide komunak emateko jardunez, eta, modu horretara, administrazioa eta lurraldea bata bestearengana hurbilduz”.

Elizaldeak azaldu du Nafarroa Ezagutu Sarea "ingurune naturala mantentzearen aldeko apustu bat dela, espazio horiek aktibo bat izan daitezzen landa-ingurunean jardun eta hura indartzeko, sektore-politika ezberdinek bat egiten duten tokian, tokikoa, zero kilometroa eta hurbiltasuneko nekazaritzako elikagaiaren alde apustu egin eta ingurune naturaletik abiatuta enplegua edo landa-nukleoak ez despopulatzeko estrategiak bultzatzeko xedez”.

Gainera, kontseilariak Gobernu honen “lurralde-garapenerako jarduerak bideratzen duen kultura berria defendatzen du” eta lan hori ingurumeneko iraunkortasunarekin lotzeaz gainera iraunkortasun ekonomiko eta sozialarekin lotzeko xedea ere bai, “proiektu honek bizitako paisaiei, landa-ingurunean eta harengandik bizi diren herritarrei erreparatu eta toki horiek mantentzeko egiten duten lan eta ahalegin izugarria aitortzen dien unetik, espazioak iraunkortasun-kulturarekin sortzeko inplikazioa, partaidetza eta kontzientziak badutela erakusteko”.

Tokiko nekazaritzako produktuekin egindako mapa sinbolikoa

Nafarroa Ezagutu Sarearen programaren aurkezpen-ekitaldiari amaiera emanez, hamaiketako egin dute. Mahai baten gainean foru-erkidegoaren maparen itxura osatuz tokiko nekazaritzako produktuak eskaini dira, produktu bakoitza dagokion eskualdean jarrita. Sarearen espazioen inguruan burutuko diren jardueren xedeetako bat, hain zuzen ere, hurbiltasuneko elikagaiak eta haien lanketa-prozesuaren inguruko ezagutza sustatzea dira.

Ildo horretatik, Isabel Elizalde azpimarratu du “Ezagutu Sareak xede duela Nafarroako espazio natural eta bereizgarriak jarduerak ekonomiko, sozial edo kulturalaren ardatzak izan daitezela, eta, azken finean, gure eskualdeetatik lurralde-garapenerako iraunkorra bultzatzeko eta landa-mundu bizi bat berrindartzeko aukerako espazio bihurtu nahi dituela”.